

# Euskalingua 14

## Aurkezpena

Irakurle hori,

*Euskalingua 14* honek ondorengo bost artikulua eskaintzen ditu: Eneko Barrutiak *Euskalingua 11, 12 eta 13n* argitaratutako artikuluen jarraipeneko grabazioaren transkripzioa egin dau. Iñaki Gamindek azentua lantzen dauan artikulua eskaintzen dau. Mitxel Kaltzakortak testu zuzenketari ekin deutso. Kepa Pérez Urrazak Zeberioko ermiten lan historiko-didaktikoa aurkeztu dau. Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritza Goi Eskolako Aholab taldearen artikulua dago, Imanol Madariaga eta Veronica Nievesek eginda, software aplikazio barria aurkeztuz.

Aipatutako artikuluez gain, barrikuntza bi dakar *Euskalingua 14k*, biak aldizkariari ahotsa eransteagaz eta Aholab taldearen lanagaz dabe zerikusi; bata Aholabeko artikuluan dago azalduta eta testua ahots bihurtzeko aplikazio informatikoa lortu izana da; bestea, zenbaki honetan, grabaketak entzuteko aukera zabaldu izana, azken hau Aholab taldea eta, bereziki, aldizkariaren alde informatikoa kudeatzen dauan Jon Sanchez ingeniariaren ahalegin estimagarriari esker. Giza ahotsa entzun ahal izateak *Euskalinguaren* balioa indartzen eta aberasten dau, zalantza barik, hizkuntzan funtsa baita hitza. Giza ahotsa, norbanakoaren ahoskera, intonazioa, azentua... ezaugarri akustikoak Euskalinguaren irakurleak, aurrerantzean, bere egin ahal izango ditu. Estreinarako, Eneko Barrutiak Dimas Zaldunbide arrantzale mundakarrari egindako grabazioak dira entzungai, hamar ahots dokumentutan banatuta.

Eneko Barrutiak *Mundakako arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa (III)* izeneko artikulua aurkeztzen dau, itsasertzeko herrietako arrantzaleei egindako grabazioen transkripzioarekin jarraituz, arrantza langintzako lexiko berezituaren barri zehatza aurkitu daiteke eurotan; hasierako xedea lexikoa izan arren, lexikoaz gan, edukietan be aberastasuna darie grabazio hauei. Aurrean esan dan moduan, grabazio hau ahots dokumentuetan dago entzungai.

Iñaki Gamindek *Azentuaren korrelatu akustikoak Gatikako lexikoan* artikuluan herri honetako 1.945 berba azentuduneko corpus lexikoan oinarritutako ikerketa aurkeztzen dau, azentuari eragin leikioen iraupena, oinarritzko maiztasuna eta energia neurtu eta aztertuz, bai berba unitateetan bai silaba unitateetan.

Mitxel Kaltzakortak *Zuzentzen testuak bizkaitarrez idatziak (I)* artikulua aurkeztzen dau; izenburuak berak agintzen dauan legez, bizkaieraz idatzitako hiru testu idatziren arlo testuala, hau da, testuon koherentzia, kohesioa eta egokitzapenaren ikuspegitik dihardu, bertan aukeratutako testuen aldaerak aurkeztuz.

Kepa Pérez Urrazak *Zeberio haraneko ermiten zehar ibilaldi historiko-didaktikoa* izenez dakarzkun artikuluan, haran horretako hamasei ermitaren zehaztasun historikoak, batzuk ineditoak, irudiak, eta bestelako datuak dira irakurgai; besteak beste, toponimia arloko aportazioa har daiteke aintzat.

Imanol Madariaga eta Verónica Nieves, Aholab ingeniari taldekideak, *Euskarazko web testuak ahots bihurtzeko software aplikazioa* izeneko artikulua aurkeztzen dabe. Euskaraz idatzitako web testuak sintetizatze eta seinalea erreproduzitzeko balio duen aplikazioa garatu dabe. Instalakuntza eta diseinu ahalik eta sinpleena lortzen saiatu dira eta emaitza botoi bat da, horri sakatuz aukeratutako testu zatia entzun daiteke. Artikuluan zehazten ditue aplikazioaren nondik norako interesgarriak.

Gustuko artikulua aurkituko dituzulakoan

Maribi Unamuno Garate

Editorea

victoria.unamuno@ehu.es